

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko maiatzaren 25tik ekainaren 1rako astea**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2020/05/25 Bizkaiko Aldizkari Ofiziala

- Erabakia Lan eta Justizia saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Arrain Kontserbei eta Gazituei buruzko Hitzarmen Kolektiboaren aldaketa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000685011981). [2020-97 \(III-127\) xedapena - 3 orri.](#)
- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Arrain Kontserbei eta Gazituei buruzko Hitzarmen Kolektiboaren 2020 urteko soldaten berrikusapena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000685011981). [2020-97 \(III 128\) xedapena - 4 orri.](#)

2020/05/29 Bizkaiko Aldizkari Ofiziala

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko bidaiarien garraio erregular eta diskrezionalen zerbitzuen sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren 2020ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48002335011981). [2020-101 \(III-133\) xedapena - 4 orri.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/05/26

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Nazioarteko garraioa.-** TMA/444/2020 Agindua, maiatzaren 25ekoa, nazioartean garrantzia duten osasun publikoko larrialdiei erantzuteko gaitasuna duten sarrera-puntuen zerrenda zabaltzen duena. [2020-5285 xedapena - 2 orri.](#)

2020/05/27

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** 19/2020 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 26koa, neurri osagarriak hartzen dituen nekazaritza, zientzia, ekonomia, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen alorretan, COVID-19aren ondorioak arintzeko. [2020-5315 xedapena - 32 orri.](#)
- **ESTATUKO PRESIDENTETZA.- Dolu nazionala.-** 538/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, dolu ofiziala deklaratzeko duena COVID-19aren pandemiaren ondorioz hil direnen alde. [2020-5316 xedapena - 1 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** SND/445/2020 Agindua, maiatzaren 26koa, honako hauek aldatzen dituen: SND/271/2020 Agindua, martxoaren 19koa, hondakinak kudeatzeari buruzko jarraibideak ezartzen dituen COVID-19ak eragindako osasun krisialdiak irauten duen bitartean, eta SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, alarma egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu mailako zenbait murrizketa malgutzen dituen, normaltasun berri baterako trantsizioarako planaren 2. fasea aplikatuz. [2020-5323 xedapena - 4 orri.](#)

2020/05/29

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Nazioarteko garraioa.-** TMA/454/2020 Agindua, maiatzaren 28koa, nazioartean garrantzia duten osasun publikoko larrialdiei erantzuteko gaitasuna duten sarrera-puntuen zerrenda zabaltzen duena. [2020-5412 xedapena - 2 orri.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.-** Landare barietateak. Araudiak.- APA/455/2020 Agindua, maiatzaren 26koa, ministerioaren zenbait agindu aldatzen dituen, hazien eta bestelako erreproduzio materialen kontrolari eta ziurtagiriei dagokienez. [2020-5413 xedapena - 32 orri.](#)
- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA.- Petrolio-sektorea.-** TED/456/2020 Agindua, maiatzaren 27koa, Petrolio-produktuen Erreserba Estrategikoen Korporazioari ordaindu beharreko aparteko kuotak onesten dituen, COVID-19ak eragindako krisiaren eraginaren ondorioz. [2020-5414 xedapena - 10 orri.](#)

2020/05/30

- **GORTE NAGUSIAK.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko maiatzaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila enplegua babesteko babes sozialei buruzko maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-5466 xedapena - 1 orri.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA**
 - **Alarma egoera. Abiazio zibila.-** SND/457/2020 Agindua, maiatzaren 29koa, salbuespenak ezartzen dituen aireontzi ultra-arinen pilotuen lizentzien alorrean, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeraren ondorioz. [2020-5468 xedapena - 3 orri.](#)
 - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** SND/458/2020 Agindua, maiatzaren 30ekoa, alarma egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu mailako zenbait murrizketa malgutzen dituen, normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 3. fasea aplikatuz. [2020-5469 xedapena - 28 orri.](#)
 - **Administrazio epeak.-** Instrukzioa, 2020ko maiatzaren 28koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, administrazio epeen etenak kentzeari buruzkoa. [2020-5475 xedapena - 4 orri.](#)

2020/06/01

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Bizitzeko gutxieneko errenta.-** 20/2020 Errege Lege-dekretua, maiatzaren 29koa, bizitzeko gutxieneko errenta ezartzen duena. [2020-5493 xedapena - 44 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/05/25

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.- INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.-** 63/2020 DEKRETUA, maiatzaren 19koa, 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartzen duena. [2020-2036 xedapena - 4 orri.](#)
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, aparteko dirulaguntzetarako deialdia finantzatzera

bideratutako baliabide ekonomikoak handitzekoa; dirulaguntza horien hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki, haien jarduerak etenda dituztenak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. [2020-2039 xedapena – 2 orri.](#)

2020/05/26

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko maiatzaren 20koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeari buruzkoa. [2020-2044 xedapena – 1 orri.](#)

2020/05/27

- **IZENDAPENAK, EGOERAK ETA GORABEHERAK.- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.-** EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, non argitaratzen baita Imanol Telleria Herrera jaunak gaingitu egin duela 2019ko uztailaren 16ko ebazpenak (2019ko abuztuaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) dei egindako hautapen prozesua, «Politika eta Administrazio Zientzia» jakintza arloan irakasle agregatuaren plaza bat betetzeko. [2020-2063 xedapena – 2 orri.](#)

2020/05/28

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.- INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.-** HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 63/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, 2017-2028 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra onartzen duena. [2020-2076 xedapena – 1 orri.](#)

2020/05/29

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.-** AGINDUA, 2020ko maiatzaren 19koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, euskal merkataritza-sektorerako «COVID-19» dirulaguntzak arautzen dituen eta 2020ko ekitaldirako deialdia egiten duena. [2020-2092 xedapena – 24 orri.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/05/27

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa. Onestea Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua aldatzen duen Kontseiluaren urtarrilaren 21eko 4/2020 Foru Dekretuaren indarraldi data aldatzea.- [2020-1169 xedapena – 2 orri.](#)
- **FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).-** 86/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoan baimendutako adinekoentzako, desgaituentzako eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitzazentroetara bisitak arautzen dituen, COVID-19aren osasun-krisialdian.- [2020-1198 xedapena – 3 orri.](#)

2020/06/01

- **BATZAR NAGUSIAK.- FORU ARAUAK.-** 6/2020 Foru Araua, maiatzaren 20koa, apirilaren 21eko 4/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak. [2020-1174 -xedapena – 1 orri.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/05/25

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 999/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 21ekoa. Honen bidez, Foru-Agindu hauek aldatzen dira: batetik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren martxoaren 5eko 541/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko zergaldiko autolikidaziorako 100 eredu onesten den, bai eta eredu horren aurkezpen telematikoa egiteko prozedura ere, eta, bestetik, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren martxoaren 5eko 540/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez ondarearen gaineko zergaren 2019ko zergaldiko autolikidaziorako 714 eredu onesten den, bai eta eredu horren aurkezpen telematikoa egiteko prozedura ere. Azkenik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2019ko ekitaldiko autolikidazioari dagokion zenbatekoaren bigarren ordainketa egiteko epea atzeratzen da, salbuespenez. [2020-97 \(I-340\) xedapena – 3 orri.](#)

2020/05/27

• GIZARTE EKINTZA SAILA

- Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 26519/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa, zeinaren bidez arautzen baitira Bizkaiko Lurralde Historikoko eguneko arretarako gizarte zerbitzuen zentroak covid-19ak eragindako osasun-krisiak dirauen bitartean zabaltzeko baldintzak. [2020-99 \(I-348\) xedapena – 2 orri.](#)
- Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 26520/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa, zeinaren bidez arautzen baitira Bizkaiko lurralde historikoko adinekoentzako, desgaitasuna duten pertsonentzako eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentro baimenduetan covid-19ak eragindako osasun-krisiak dirauen bitartean egin daitezkeen bisitak. [2020-99 \(I-349\) xedapena – 3 orri.](#)

2020/05/28

• OGASUN ETA FINANTZA SAILA

- 6/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, maiatzaren 26koa. Honen bidez, neurri osagarri batzuk ezartzen dira balio erantsiaren gaineko zergan, COVID-19aren larrialdi sanitarioaren ondorioz. [2020-100 \(I-334\) – xedapena – 8 orri.](#)
- Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020rako Hiri eta Landa-Ondasun Higiezinaren Katastro-Erroldak. [2020-100 \(I-346\) xedapena – 1 orri.](#)

Dia 29/05/2020

- **EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren 45/2020 FORU DEKRETUA, maiatzaren 26koa. Honen bidez, Suspertze Adimentsua 2020 programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dira. [2020-101 \(III-344\) – xedapena – 20 orri.](#)

2020/06/01

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren 76/2019 FORU DEKRETUA, ekainaren 18koa, desgaitasuna duten pertsonen zentroetan arreta jasotzeko beharrianaren gizarte-adierazlea onesten duena. [2020-102 \(I-309\) xedapena – 7 orri.](#)

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1031/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 29koa. Honen bidez, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren aitortpenak eta autolikidazioak aurkezteko epea luzatzen da, aurkezpen telematikoa nahitaezkoa ez dutenentzat, COVID-19 birusak eragindako osasun-larrialdiaren egoerak sortutako murrizketen ondorioz. [2020-102 \(I-362\) xedapena – 2 orri.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/05/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.-** 5/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 26koa, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoa. [2020-2310 xedapena - 16 orri.](#)

2020/05/29

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**
 - 241/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan «jarduera ekonomikoetan izandako galerak konpentsatzeagatik aplikatzen den kenkaria» eskatzeko CBK eredia onetsi eta hura aurkezteko era eta epea ezartzen dituen. [2020-2342 xedapena – 5 orri.](#)
 - 242/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, zeinaren bidez onartzen baitira 200, 220, 20G eta 22G ereduak, eta horiek aurkeztu eta ordaintzeko modua, epea eta tokia. [2020-2343/01 xedapena – 139 orri.; 2020-2343/2 xedapena – 127 orri.](#)
 - 243/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, zeinaren bidez COVID-19aren ondorioz eteten baitira baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotutako epeak, edo antzeko beste batzuk. [2020-2344 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/01

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.-** Akats zuzenketa. 5/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 26koa, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoa. [2020-2403 xedapena – 1 orri.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/05/27

- 2020/696 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko maiatzaren 25ekoa, 1008/2008 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Erkidegoan aire zerbitzuak ustiatzeko arau komunei buruzkoa, COVID-19aren pandemia ikusita (¹). [L 165/01](#)
- 2020/697 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko maiatzaren 25ekoa, 2017/352 (EB) Erregelamendua aldatzen duena portuen erakunde kudeatzaileei edo agintaritza eskudunei portuko azpiegiturengatik tasak kobratzeko malgutasuna ahalbidetzeko, COVID-19aren agerraldiaren testuinguruan. [L 165/07](#)
- 2020/698 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko maiatzaren 25ekoa, berariazko aldi baterako neurriak ezartzen dituen COVID-19aren agerraldiaren ondorioz, ziurtagiri, baimen, lizentzia eta baimen jakin batzuk berritzeari edo luzatzeari buruzkoak, eta garraioaren arloko legeriaren eremu jakin batzuetan aldizkako kontrol jakin batzuk eta etengabeko prestakuntza geroratzeari buruzkoak. [L 165/10](#)
- Batzordearen 2020/702 (EB) Erabakia, 2020ko maiatzaren 20koa, berriz ere luzatzen duena 2020/430 (EB) Erabakiaren Kontseiluaren barne erregelamenduaren aldi baterako salbuespena, zeina 2020/556 (EB) Erabakiak luzatu zuen, Europar Batasunean COVID-19aren pandemiaren ondorioz bidaiatzeko zer zailtasun dauden ikusi ondoren. [L 165/38](#)

2020/05/28

- Batzordearen 2020/711 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko maiatzaren 27koa, 2020/47 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskina aldatzen duena, zenbait estatu kidetan H5N8 azpimotaren patogenotasun handiko hegazti-gripearekin lotutako babes-neurriei dagokienez [C(2020) 3556 zenbakiarekin jakinarazia] . [L 166/05](#)

2020/05/29

- Batzordearen 2020/714 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko maiatzaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den 2020/466 (EB) Betearazpen Erregelamendua, dokumentazio elektronikoa erabiltzeari dagokionez, kontrol ofizialak eta bestelako jarduera ofizialak egiteko eta aldi baterako neurrien aplikazio-aldiari dagokionez (¹). [L 167/06.](#)
- Akats zuzenketa, honako betearazpen erregelamendu honena: Batzordearen 2019/628 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2019ko apirilaren 8koa, zenbait animaliaarentzako egiaztagiri ofizialen modeloei dagokiena eta zeinaren bidez aldatzen diren 2074/2005 (EE) Erregelamendua eta 2016/759 (EB) Betearazpen Erregelamendua, egiaztagirien aipatutako modeloei dagokienez. (DO L 131, 2019-5-17koa). [L-167/17.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO